

**Revolving kredituari buruzko kontratu aurreko informazio gehigarria (Banku-zerbitzuen gardentasunari eta babesari buruzko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Aginduaren 33.3 artikulua)**

WiZink kreditu-txartela

Caser Cling\_Cling kreditu-txartela aplikatu ahal zaio.

Oharra: Lehen hizkia letra larriz idatzita duten hitzak edo hitz-taldeak txartel honen Europako Informazio Normalizatuaren dokumentuaren 4. ataleko glosarioan definitzen dira.

<p><b>Zure txartelaren kreditu-lerroa eta ordainketa-modalitatea</b></p>	<p>Zure txartelaren kreditu-lerroa berriztagarria edo <b>revolving</b> motakoa da.</p> <p><i>Revolving</i> kredituen ezaugarri nagusia kreditu-muga bat ezartzea da, eta eskuragarri dagoena bat dator hasiera batean muga horrekin. Karguak (erosketak, dirua ateratzea, transferentziak, interes eta gastuen likidazioak, etab.) egin ahala, murriztu egiten da, eta ordainketekin (aldizkako ordainagiriaren ordainketa, erosketak itzultzea, etab.) berritzen da. Beraz, txartelaren titular gisa ordaintzen duzun hileko kuotaren zenbatekoak txartelaren kreditu eskuragarriaren parte izatera itzultzen dira.</p>
<p><b>Zer gertatzen da iraungi diren, eska daitezkeen eta ordaindu ez dituzun zenbatekoekin?</b></p>	<p>Bankuak interesak kapitaliza ditzake hileroko; beraz, Likidazio Datetan, sortu diren eta ordaindu ez diren interesak Xedatutako Kredituaren parte izatera igaroko dira, eta interes berriak sortuko dituzte, aplikatzekoa den interes-tasa nominalean.</p>
<p><b>Ezarritako ordainketa-modalitatea aldatzea eta hura erabiltzeko baldintzak</b></p>	<p>Txartelaren titular gisa, une bakoitzean zure beharretara ondoen egokitzen den kreditu-lerroa erabiltzeko ordainketa-modalitatea aukeratu behar duzu. Gainera, Fakturazio-epe bakoitzerako aukeratutako ordainketa-modalitatea aldatu ahalko duzu, eta WiZinki jakinarazi beharko diozu ohiko komunikazio-kanalen bidez, gutxienez ezarritako hileroko kuotaren Ordainketa Data baino lau (4) egun baliiodun lehenago. Ez badago aldaketarik, ulertuko da ordaintzeko modua aurreko Ordainketa Datan erabilitako berbera dela.</p> <p>Kreditu-txartela eskatzeko eta/edo aktibatzeko unean ez baduzu espresuki adierazi ordainketa-modalitaterik, ulertuko da ordainketa osoaren modalitatea aukeratu duzula.</p> <p>Ordainketa ez baduzu hurrengo Fakturazio-epea amaitu aurretik egiten, WiZinkek eskubidea izango du automatikoki gutxieneko ordainketaren modalitatea ezartzeko.</p>

**Ezarritako ordainketa-modalitatea aldatzea eta hura erabiltzeko baldintzak**

Gutxieneko ordainketa hori zifra hauetatik handiena izango da:  
i) 18 € edo; ii) Likidazio Datan honako kontzeptu hauek batuta lortutako zifra:

- Xedatutako Kredituaren % 1, sortutako interesak, ordaindu gabeko kuoten erreklamazio-gastuak eta ordainketa babestuen aseguru-prima kenduta; gehi
- Fakturazio-epeari dagozkion interesak; gehi
- aurreko fakturazioaren gutxieneko ordainketa, ez bada ordaindu; gehi
- ordainketa babestuen aseguru-prima; gehi
- Fakturazio-epearen ordaindu gabeko kuotaren erreklamazio-gastua; gehi
- biribiltzea; gehi
- Ordainketa Atzeratuaren Zerbitzuen kuota